


- **Entzutekuak:** Iñaki Arribillaga aurtengo denboraldiaz berbetan
- **Kultura:** Aurtengo Erromerixa Eguna ekainaren 11n izango da

soraluzeko
hamabostekaria **243.** alea
2011ko maiatzaren 20an

PIL-PILEAN



**Udal eta Foru Hauteskundeak
Udaletxerako bost aukera**

IREKI BIDEA EZKERRARI

Bozkatu

aralar

BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
Bergara

ATE IREKIAK

Zatoz MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA ezagutzera.
Maiatzaren 21ean, goizeko 11etan, zabalik izango duzu.

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 10era

MATRIKULA

Uztailaren 4tik 8ra

IEFPS MIGUEL ALTUNA GLHBI

Ibargarai 1, 20570 BERGARA

Tel.: 943 76 38 40 / 943 76 24 91

imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com



OSKAR ELIZBURU



MAITE ETXEBERRIA

“BATEONBAT ELEGIDU BIHAKOU”

Epa, Maitetxu! Aurreko baten, erretiruaren inguruan jardun genduanian, lanerako eta eraikitzeko asmua erakutsi genduan eta, hara, hemen jaton ba aukeria! Bajatonaz hauteskundiak eta, gure amak esaten eban moduan, *bateonbat elegidu bihakou*.

Aztertzen hasi ezkerero, modu askotan irakurri geiken esaldi hori:

Bateonbat elegidu bihakou, bat edo bat hori ez don baiña brometakua! Bat edo bat esaten dogunian, hauteskundi-dietan parte hartziari buruz gabiña; iñongo zalantza barik botua emotera juango garala esaten ari gaittun. Aldaketak eta hobekuntzak egiteko, norbaitekin bat egitearen biharra. Bateonbat horretan, hortaz, ez jaon ardura faltarik; guztiz kontrakua, arduraz jokatzeko deiarra don.

Bateonbat elegidu bihakou, auke-
ratzia ez don broma. Ondo begiratuta hautatu bihar jonau, luzerako biko-
tekidia bailitz. Azterketa horretan, gabiñera, zoli ibili behar gaittun, benetako mezuei adi. Mamiñari begiratu bihar jotsanau, gure bihotzetan eta burmuinetan dagan horrekin zertan bat egitten daben ondo irakurritta.

Bateonbat elegidu bihakou, behar horrek premiñia erakusten joskun, ezinbestekotasuna. Baiña, beste aldetik, **gu** hori be bajaukan; parte hartzia, bihargiñaren ekimena. Aukeratu biharra jaukanau geure gu txiki bat, sikiera, iñon egon dein; bakoitza diferentia izanda aukeratutakua ez daittezen izan danak berdiñak.

Bajakiñat txintxo-txintxo juango haizela, 22xan, botuak emotera; baiña aurrekuak kontuan hartuta (edo hartu barik) zeri begiratuko dotsan elegitzeko orduan?

“

**Zeri
begiratuko
dotsan
elegitzeko
orduan?**

Oskar Elizburu

**Bere burua
aurkezten
dabena gogotsu,
ilusionatuta
egon behar dok**

Maite Etxeberria

”

Gehiegi pentsatu gabe erantzungo dostat, buruak esaten dostanari kasu eginez, eta buruari buelta larregi eman barik. Hauteskundeak gora eta hauteskundeak behera, besterik etxaok egunkari, irrati eta abarretan. Bitxia benetan izan dok aurreko asteburukoa: Peio lehengusua bisitatzeraz joan Castelloko kartzelara, eta bidean irratia piztu eta taka! Euskal Herrikan kanpoko hauteskundeetako mezueta Euskal Herria bolo-bolo. Jakin banejekixan garrantzitsuak garela, baina ez hainbesteraino. Nik botoa ematera koan zeri begiratuko dotsaten?

Bere burua aurkezten dabena gogotsu, ilusionatuta egon behar dok. Ez jittuat atsegin urteak joan, urteak etorri, inertzia edo boterea gustuko dabelako edo emoziorik sentitu gabe dauden horiek.

Gure balioen ordezkariak nahi jittuat. Mundua, bizitza, ingurua, harremanak ulertzeko modua geurearen antzerakoa izan behar dok.

Ausartak eta aldaketen aurrean kiltzen ez direnak nahiko nittukek erabakiak hartzen. Begiak eta burua zabalik dittuztenak. Lehendik on egitten doskunari eusten dotsenak, eta hobetzen, gelditu barik dihardutenak. Talde baten ordezkari diren neurrian, behar denean nahi kolektiboari begiratzen dotsenak, interes pertsonalak albo batera lagata. Horiexek jittuat maite.

Hanka sartu, onartu eta aurrera jotzen dabena aukeratu behar jittuat, albokoari barkamena eskatzen dakitenak eta kokotetik gora eginda darenean euren burua ezkutatzeko lotsarik ez daukenak. Edo zalantzak dittuenean galdetzeko beldurrik ez daukenak. Talde lana egiten dabena, ekipoan, adosten...taldera bildu nahi dena.

Goguan hartzeko

Anitz dira deituak eta gutxi hautatuak
Gotzon Garate,



GUTUNAK

Jakineko amaiera

Legealdi guztian zehar behin eta berriz aritu da oposizioa, modu bateratuan eta ahots batez, gobernu taldearen ekimenak oztopatzen. Hori ikusita erraz aurreikus zitekeen, zoritxarrez, maiatzaren 4ko azken plenoan gertatu zena, hau da, eraman ziren sei proposamenetatik hiru blokeatuta geratzea. Bereziki larria deritzogu maisuen etxean alokairuan sartzeko pertsonak onartu eta aukeratzeko oinarriak ez eztabaidatu izana. Gai hau 2010eko ekainetik darabilgu esku artean eta hainbat batzorde-bileratan eztabaidatu, diktaminatu eta adostu da ordutik. Oinarri hauek PSE-EEk eskatuta utzi ziren mahai gainean, berauen erredakzioan zalantza batzuk zituztela adieraziz. Eta horretarako, EAJren laguntza ordainezina jaso zuten, PP gonbidatu mutuarenaz gain.

Zergatik ez dira hautagai guztiak euskaldunak?

Herri euskaldunak asko dauka esateko maiatzaren 22an; euskaldunok asko dugu esateko eta egiteko, baina batez ere gauza asko ditugu bere lekuan jartzeko. Badira bozka zeini eman edo ez eman erabaki aurretik baloratu beharreko kontuak gure iritziz.

Herritarren babesa eskatzen ari diren hautagaiak euskaldunak izatea oinarritzkoa da. Elkarbizitzaz, aukera askatasunaz hitz egiten dute batzuk baina beraiek dira euskaraz ez dakiten hautagaiak aurkezten dituztenak. Herrian 5 alkategaietatik

Guk ere ilusioaren alde bozkatu dugu!

Ekzer Abertzaleak azken hilabeteetan emandako pausok Euskal Herriko testuinguru politikoa goitik behera aldatu dute. Alderdi gehienak joko kanpo gelditu dira. Konstituzionalistek argi erakutsi dute eskenatoki berri bat eraikitzea baino gehiago interesatzen zaiela gatazkaren konponbidean ez sakontzea. Horretarako Sortu ez legezta-tzea erabaki zuten. Erabaki horren ondorioz ehundik gora soraluzetarren eskubide zibil eta politikokoak urratuta gelditu dira. Horrela ekzer abertzaleko zerrendetan aurkeztu izan garenok debekatuta daukagu hauteskunde hauetan hautagai izatea eta bozka eskatzea. Ondorioz gutun hau idatzi dugun Jose Luis Arizaga (gaur egungo alkatea) eta Unai Larreategi (Sortu legala balitz alkategaia) ere joko kanpo utzi gaitu espainiar estatuak.

Erabaki honen ondorioz, udal gobernu talde aldaketatik ematen den geldialdia dela eta, etxebizitza hauetan ezingo da inor bizitzen hasi hilabete batzuk igaro arte, nahiz eta zaharberritze lanak ia-ia bukatuta egon. Honela, etxe hauen erabilpena inolako justifikaziorik gabe atzeratuko da, beharrian handiena duten pertsonen kalterako. Horretaz gain, udal honek hain beharrezkoak dituen diru sarrerak ere ez dira momentuz etorriko.

Arduragabekeria handi honek gugan inpotentzia, harridura eta amorrua sorrarazi ditu. Ikusitakoak ikusita, gogo biziz desio dugu Soraluzeko hurrengo udalbatza herriaren eta herritarren onura lehentziko duten gizon eta emakumez osatuta egotea, alderdikoikeria makurrak alde batera utziz.

Udal Gobernu Taldea

2k dakite soilik euskaraz. Foru hauteskundeetan alderdi abertzaleen hautagaiak dira soilik euskaldunak. Noiz arte iraungo du egoera honek? Noiz ulertuko dute Euskal Herrian elkarbizitzarako eta aukeratzeko askatasuna edukitzeko ezinbestekoa dela euskaraz jakitea?

Euskaraz bizitzearen aldeko hautua bere egin eta hedatu egingo duten hautagaiak eta ordezkariak behar ditu herri euskaldunak.

Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz

Baina jai daukate ekzer abertzalearen erabakiak baldintzatuko dituztela pentsatzen badute. Gatazka konpontzeari begira gure ekarpena geroz eta indartsuagoa izango da datozen hilabeteetan. Euskal Herrian aldaketa politikoa eta soziala geldiezin izango da eta hori ezkertiar eta abertzaleen elkarlanetik etorriko da dudarik gabe.

Domekako hauteskundeak inflexio puntu garrantzitzkoak izango dira bide honetan, beraz ezkertiar eta abertzale zareten guztioi, hauteskundeetan aldaketa politikoa eta sozialaren aldeko botua emateko gonbidapena luzatu nahi ginezueke.

Eraiki dezagun Euskal Herri berria! Geure esku dago!

Jose Luis Arizaga
Unai Larreategi

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkarioko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribetxebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik



Unai Txurruka

Igandian, domekan, jaixan...
22xan zer?

Hauteskundietaz? Ez, lasai. Italiatik idazten doten lehen *Bittartetik* honetan domekan EHxan gertatuko danaz hitzegingodot. Berdinak begittantzen badabe be, badira ezberdinttasunak. Lelengua, hiritar zintzuen 4 urtian behineko egitekua izan leike. Inoiz entzuten ez gaittuenak herritarroi egitten doskuen “oparixa” alegia. Domekakua baina, ezin da betaurreko horrekin bakarrik begiratu. Europan ez moduan, krisi eta erreforma garaixotan be, beste sistema solidarixo eta justuago baten alde borrokan diharduen herri mugimendu zabalak bizirik dirau. Sistema honi, sistematik bertatik pitzadurak sortzeko baldintza apartak dittugu eta hori ganoraz aprobetxatzen jakitzia sistema bera eraldatzen hastia be bada. Horra hor, aurtent kanpotik begira egindako ikaspen bat. Gatazka politikua amaittu eta herri moduan dago-kiguna eskuratzeko sortu dan mugimendu barrixak be uego bihar dau ureztatua izatia. Domeka, beraz, “oparitutako” erabakitze eskubide faltsua, herri botere sisteman kontraesanak itxi ezingo diran pitzadura eta batzuen gatazka luzatzeko nahixa, EH osua ureztatuko daben ekaitz bilakatzeko eguna izango da! Bildu gaittezen ba!

((ENTZUTEKUAK))

Iñaki Arribillaga, Soraluze A Erregional taldeko jokalaria

Sasoian da Sorako Erregionaleko A taldea. Hamazazpi partidetatik hamahiru irabazteaz gain, Sorak beste bi berdindu egin ditu eta hiru galdu. Preferente mailara igotzeko atarian daude, zapatuan Ezozin burutuko den azken neurketaren emaitzaren zain. Iñaki Arribillagak bederatzi urtez dihardu etxeko taldean jokatzen.

Zer moduz jua da aurtengo denboraldixa?

Entrenatzaile berrixa daukagu, Ruben ermuarra eta asko ikasi doguberakin. Honekaskolagundu dosku denboraldixari aurre egitten eta partida gehixenak irabazi doguzenez, motibazinua haundi-xagua da gure artian. Edarto jardun dogula esan geinke.

Ezoziko zelaixa oin dala gutxi barritu dabe. Eraginik izan dau horretan?

Oingehixago gozatzen dogu futbolian jokatzen, futbola egitten dogu, ez lehengo moduan. Gainera eskolia sortzeko aukeria emon dau zelai berrixak eta herriko gaztixenek be zelaixaz gozatzen dabe.

Datorren urtian Preferente mailan ikusiko dogu Sora?

Bai, dudarik bare! Azken jardunaldixa jokatu eta partidua irabaztia daukagu oin erronka nagusi. Nekia igarri da jokalaria danen artian, denboraldixa azkenian luze juaten da eta.

Sasoi bateko ostikadak teknikiagaittik ordezkatu dozuez?

Ostikadak guk? Aurten teknika aldetik eta talde moduan asko ikasi dogula esan neike eta garbi jo-



katzen ahalegintzen gara. Ezoziko zelai zaharrian partidak bortitza-guak ziran. Putzu eta are artian jolastiak eraginda? Baloia kontrolatzia zailagua zan lehen. Irabaztiak lasai jolastia be ekartzen dau, baina Sorakuok galtzen be badagiku.

Aurtengo jokalaririk berezixena zein?

Ibai Rascon, gogoz sentitzen dittu Sorako koloriak eta urte mordua dihardu futbolian jokatzen.

Bihar Bergaran aurka jokatuko dozue etxian. Zela ikusten dozu partidua?

Etxian jokatziak asko laguntzen dau eta seguru zalien animuak gertu izango doguzela. Bergara talde sendua da baina preferentera igotzeko gure apustua ondiok senduagua. Lehixa politta izango da!

Zela ospatuko dozue igoeria?

Parranda bare seguro ezetz! Igoeria ospatu bihar bada igoeria ospatuko dogu baina bestela denboraldixa bukatu dala edo denboraldi ona egin dogula ospatuko dogu. Aitzakixarik ez jaku faltako!

“Bergara talde sendua da. Preferentera igotzeko gure apustua ondiok senduagua”

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

I. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Haurreskola handitzeko modulua erosi du udalak

Herriko ama talde batek eskatu moduan modulu aurrefabrikatua erosi berri dio udalak Tolosako Udalari. Matrikulazio epea itxita hamazortzi haur matrikulatu dituzte irailera bitarteko ikasturtean eta udaleko ordezkariak jakinarazi dute momentuz egun martxan dagoen eraikina nahikoa izango dela herrian dagoen eskara asetzeko. Iraileko matrikulazio

epea zabaltzen denean aldiz, modulu aurrefabrikatua beharrezkoa izango dela uste dute. Ekainean hasiko dira moduluaren atontze lanak egiten eta San Juanetarako prest izatea aurreikusten dute.

Modulua egungo eraikinaren parean kokatuko da

Mugikortasuna erraztu eta irigarritasuna hobetze aldera modulu berria Haurreskola barruankokatu dute, egun dagoen baranda lekuz aldatuz. Horrela moduluan zaintzan dauden hurrek patioaz gozatzeko aukera ere izango dute. Udala moduluaren mantenuaz arduratuko da eta Haurreskolen Partzuergoa materialen eta langileen kudeaketaz arduratuko da. Aurtengo aurrekontuetan herriko eskaria asetu eta plaza kopurua handitzeko 16.000 euroko partida udalbatzarrean onartu zen.



Modulu aurrefabrikatua kokatuko den gunea.

Odol-ematea gaur Itxaropenan


Gipuzkoako odol-emateen elkarteak odola emateko kanpamendua jarriko du gaur martxan Itxaropena Jubilatuen Etxean. Herriko odol-emateek arratsaldeko 18:30etatik 20:30era bitartean izango dute odola emateko aukera. 25 urtetik goragoko gazteei deialdi berezia egin nahi zaie.

Haurren danborradako entseguak hastear

Ekainaren 2an danbor hotsek herria astinduko dute berriz, haurren danborradarako lehenengo entsegu egingo da eta. Bertan parte hartu nahi dutenek institutuko frontoira gerturatu beharko dira martitzenero, arratsaldeko 19:00etan. Antolatzaileek entsegu orokorren data jakinarazi dituzte baita. Honek uztailaren 19an eta 21ean egingo dira.

Espezie inbaditzaileak garbitzen dihardute

Soraluzetik hasi eta Maltzagarainoko erreka bazterra garbitzen dihardu udaleko brigadak. Asmoa ekainera bitartean bost kilometroko ibilbidean "Reynoutria Japonica" landare inbaditzailea garbitzea izango da. Deba ibaia berreskuratzeke lehen ekimena da aipatutakoa.



Haitiri buruzko erakusketa

"Haitik behar gaitu. Haitik behar dugu" argazki erakusketak apainduko ditu kiroldegiko erakusketa aretoko hormak maiatzaren 25etik apirilaren 4ra bitartean. Soraluzeko Misio Taldeak antolatutako ekimena izango da hau, helburu nagusizat, Haitiko lurraldeak pairatutako lurrikarak eragindako kalteak erakustea duena.

Jai batzorde sendoa osatu da

Aurreko barixakuan Galtzagorri jai batzordeak behar zuen bultzada jaso zuen herriko hogeita hamar gazteren partetik. Jakiz betetako mahai baten bueltan Santiago-Santa Ana jaien filosofiaren inguruan hausnartu zuten eta honi lotutako proposamenak ere jaso zituzten. Galtzagorriak barixakuro batuko dira iluntzeko 21:00etan Zinean.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Euskarazko hedabideen arazo larria mahai gainean

Tapoien birziklapen solidarioa

Birziklapen solidarioa egiteko aukera dago merkatu plazan. Ataxia gaixotasuna daukan ume bati laguntzeko asmoz, Aitzina lan-taldeak plastikozko tapoiak jasotzen dihardu Euskal Herri mailan eta birziklapenarekin jasotako dirua Ataxia gaixotasuna ikertzeko erabiliko da. Sorraluzen ere, herritar baten ekimenari esker, merkatu plazan jarri da plastikozko tapoiak batzeko ontzia.



Ibilaldira joateko autobusa

Ondarroan ospatuko da maiatzaren 29an Bizkaiko ikastolen aldeko jaia. Pil-pilean Euskara Elkartek, Elgoibarko Izarra Elkartearekin elkarlanean autobusa antolatu du bertaratu nahi duten guztientzat. Irteera 9:30ean izango da Estaziño kaletik eta 20:00etan itzuliko dira herrira. Izena eman nahi dutenek Iratxo, Gaztelupe eta Arranon egin beharko dute, maiatzaren 26a baino lehen.

54. urtean jaioetakoen bazkaria

Aurten 57 urte betetzen dutenek bazkaria egingo dute ekainaren 11n eguerdiko 14:30ean Txurruka jatetxean. Izena emateko azken eguna maiatzaren 30a izango da eta horretarako Txurrukara bertara deitu beharko da (943 75 1581). Ordainketa egunean bertan egingo da.

62. urtean jaioetakoen bazkaria

47 urte betetzen dutenak ere bazkaltzeko geratu dira, ekainaren 11n Txurruka jatetxean. Bertan parte hartu nahi dutenek Txurrukara deitu beharko dute. Izena emateko azken eguna ekainaren 4a izango da eta egunean bertan, eguerdiko 14:00etan Txoko tabernan elkartuko direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Otsailean euskara hutsez jarduten duten 86 hedabide ez publikok gizartean duten papera azpimarratu eta erakunde publikoen sostengu handiagoa eskatzeko kanpaina abiarazi zuten. Aurreko martitzenean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean eskainitako prentsaurrekoan, Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiekin bilera egin ostean, horien emaitzaren berri eman zuten. Hedabideek diru-laguntza publikoetan 2012rako %25eko igoera eskatu dute, krisiaren ondorioei hobeto aurre egin ahal izateko; publikitate instituzionalaren %25 euskarazko hedabideetara bideratu dadila eta sektorea eta instituzioen arteko mahaia osatzea ere eskatu dute, hedabideek bizitzen diharduten egoera estuaz bertan jarduteko. Agerraldian esandakoaren arabera, EAEko instituzioak hedabideekiko duten harremana sakontzeko prest azaldu dira, baina krisia dela eta sektoreak diru-

laguntzetan eskatzen duen igoera zalantzan jarri dute. Hedabideek ia 2 milioi euroko igoera eskatzen dute, 100 hedabideren artean banatzeko, ia 600 langile inguru baten dituztenak.

Hurrengo pausoa egoera larria gizarteratzea

Gizartea, orohar, euskarazko hedabide askok bizitzen diharduten egoeraz jabetu dadin, "Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz. Euskarazko hedabideak, denon beharra" lemapean kanpaina berria abiaraziko dute egunotan. Sektorearen garrantzia azpimarratzea eta gizartearen konpromisoa indartzea izango dira kanpaina honen helburu nagusiak. Interneten, irrastian, telebistan eta prentsa idatzian emango da honen berri.

Euskara hedabideetako ordezkariak prentsaurrekoan



Kanpainarako aukeratu den irudietako bat.

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

MAPFRE

SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Sorraluze (Gipuzkoa)
email: jibarza@infonegocio.com


Tlf.: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Datorren domekan jakingo dugu hurrengo lau urteetan zein izango den Soraluzeko alkate. Herritarrei galdetu diegu herrian zer aldatzeko premia dagoen.

Soraluzeko alkate bazina, zer aldatuko zenduke herrixan?

BORJA ARISTI
Komertziala



Umiendako parkiak eta aparkalekuak ugartituko neukez. Ume gehixenak Plaza Zaharrian ibiltzen dira eta nagusixendako arriskutsua izan leike. Ez daukaugu toki asko herrixan baina parke eder bat bihar dogu.

MARIA DOLORES LONBIDE
Margolarixa




Nik alderdixen arteko lehia ezabatuko neuke eta behingoz herrixan pentsatu deixen lan egin. Argiztapena hobetu, adokinaua konpondu, gainbegiratu eta udalak bere erantzukizunak bihar dan moduan hartu biharko leukez.

JUAN IGNACIO LASKURAIN
Garraio enpresako langilia



Aparkaleku faltia dago, umiendako parkiendako tokixa egin bihar da eta zorua aldatzeko biharra be badago. Eurixaz ezin leike adokinauan gainian ibili, solte dago dana. Horretxek gauzak konponduko neukez.

MARGA CABEZON
Dendarixa



Jende guztiak buruan ditto aparkalekuak. Baina batez be herriko merkataritza bultzatuko neuke nik. Izan be, plaentxiar asko juaten da kanpora erosketak egittera, baitta erosketak txikixak be..

Eman zure iritzia sarean



Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Polígono Amillaga, nº 5
Tif.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



**2011/12
MATRIKULAK**

Maiatzaren 16tik ekainaren 22ra ZABALIK

Barnetik sentitu, bihi, musika gozatu

SORALUZE
musika eskola

Frontoi kalea 1, 20.590 SORALUZE • Tif. 943 75 15 44 • Emaila: soraluze2@musika.e.telefonica.net



Makina Erremintaren Institutua
Instituto de Máquina Herramienta

HEZIKETA ZIKLOAK / TXANDAKAKO INGENIARITZA

Ate IREKIAK: Maiatzak 28, 11:00etan



ingeniaritza
imh 

Ikasi eta lan... zure txanda!

aurrematrikula: ekainak 17

Zatoz eta ezaqutu gaitzazu!

IMH

HEZIKETA ZIKLOAK

aurrematrikula: ekainak 1-10

matrikula: uztailak 4-8

ww.imh.es - Tel.943744132 - Elgoibar

Soraluzeko Udal eta Foru Hauteskundeak 2011

Duela bi aste hasi zen lasterketa eta domekan amaituko da hautestontzietan. Lehian bost talde eta aukeratzeko bost aurpegi, Hiart Arluziaga (Bildu), Iker Aldazabal (EAJ), Soledad del Bosque (PSE-EE), Julia Tercero (PP) eta Vicente Martinez (EB-B). Alkategaiei galderak erantzuteko eskatu diegu.



Hiart Arluziaga
Bilduko alkategaia



Hiart Arluziagak (1978) ETBn emisio arduradun bezala lan egiten du. Telebistako Errealizaziorako goi mailako teknikari ikasketak ditu eta politikara aurten egin du lehenengoz jauzi.

Ze balorazio egiten duzu joandako legealdiaz?

Udal gobernua egindako lana aitortzen dugu. Batetik, udalak herriarekiko hurbiltasuna eta partehartzea bultzatzeko pausoak eman dituelako eta bestetik, arlo askotan garatu dituelako egitasmoak: zinea berritu, kiroldegiaren kudeaketa hobetu, Maisuen Etxeetako etxebizitzak alokairura bideratu, herrigunea peatonalizatu, Emakumearen Saila sortu, zuntz optikoa ekarri, futbol zelaia berritu... Beraz, balorazioa positiboa da.

EAJ-PSEE-PPk bat eginda trabak eta oztopoak jartzen saiatu dira etengabe. Datozen lau urteetan hori gertatu ez dadin Bildu Udaletxean indartsu sartzea behar dugu.

“Elkarlanaren eta partehartzearen aldeko bozka gara”

Zeintzuk izango dira lau urte hauetarako zuen taldearen proposamen eta asmo nagusiak

Bildurentzat arlo sozioekonomikoa eta hezkuntza izango dira lehentasunekoak. Ekonomia lokala bultzatzeko erakunde publikoei baliabideak eskatu eta eragile ekonomiko eta sozialekin batera politika ekonomiko eta sozial aktiboak garatzeko neurriak hartzen hasi beharra daukagu. Hezkuntzari dagokionez, azpiegituren arazoa konpontzeko, beharrezkoa da herriko hezkuntzako eragileen artean egitasmo integrala adostea eta Jaurilaritzan aurkeztea.

Peatonalizazioari dagokionez, astegunean autoak sartzea proposatu dutenak (EAJ eta PSEekoak) Kalebarren edo Plaza Zaharrera gonbidatuko nituzke edozein arratsaldetan eta ikusi dezatela ze giro sortzen den.

Euskarari ze ekarpen egingo diozue?

Geroz eta herritar gehiagok euskaraz bizitzeko aukera egin dezan egingo dugu lan. Horretarako, Udalak eredu izan behar du. Udalaren funtzionamenduan hizkuntza nagusia euskara izan dadin pausoak emango ditugu. Koherentziaz, Bilduko hautagai guztiak euskaldunak dira eta gutxienez elebidunak

Zergatik bozkatu beharko genuke Bildu?

Euskal Herrian politika egiteko modua aldatu nahi duen gizarteko mugimendu zabala gara. Soraluzen ere pentsakera eta adin askotako jendea batu gara eta egitasmo aurrerakoi eta integrala aurkeztu diegu soraluzetarrei. Bildu elkarlanaren eta partehartzearen bozka da eta soraluzetarrek badakite.

Zerrenda

1. Hiart Arluziaga Ariznabarreta
2. Roke Akizu Aizpiri
3. Lorea De Castro Lete
4. Mikel Argarate Ucin
5. Mikel Santiago Arizaga
6. Roman Maiztegi Ariznabarreta
7. Eneka Ezenarro Albusua
8. Naiara Beretxinaga Laskurain
9. Iñigo Eguren Uranga
10. M^o. Angeles Garitagoitia Larruskain
11. Maite Narbaiza Azkue
12. Mariaje Etxeberria Andoaga
13. Jagoba Zubiaurre Ezenarro
14. Maria Urizar Murua



Iker Aldazabal

EAJko alkategaia



Iker Aldazabal (1977) Zuzenbidean lizentziatua da eta Inguru Zuzenbidean masterra dauka. Herriko zinegotzia izan da azken zortzi urteetan. 2003-2007 legealdian alkateordea izan zen eta Hirigintza, Nekazaritza eta Ingurugiro batzorde burua. Joan den honetan jeltzaleen bozeramaile izan da. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Batzarkidea ere izan da.

Ze balorazio egiten duzu joandako legealdiaz?

Baloratu beharko litzateke orain dela lau urte ezker abertzaleak eta EAK hauteskunde kanpainen hitz eman zutena. Besteak beste, esan zuten Erregetxeko orubean aparkaleku publikoak egingo zituztela, EAK aldiz “ U ” gunean. Denok dakigu zer egin duten gai honi dagokionez. Sahiesbideko bideetako bat aparkaleku gisa ipini eta hitz emandakoa ez bete. Herrian minibus zerbitzua ipiniko zutela ere esan zuten. Edota kultur etxe berria, gaztetxokoa, eguneko zentrua nagusientzat. Frontoiko eraikin zaharra eta institutua zaharberrituko zutela. Herriarren partaidetza bultzatuko zutela esan zuten eta ikusi denez erabaki garrantzitsuenak alkateak berak (dekretoz) hartu ditu. Ondorioz, esan dezakegu kudeaketa kaskarra izan dela. Dena dela pentsatzen dugu balorazio errealena herriarrek maiatzaren 22an egingo dutena izango dela.

“Umiltasunez, ideiak garbi edukita herri honen alde lan egiteko prest nago”

lanak burutu. Ingurugiro arloan bertakoak diren zuhaitz landaketak burutu.

- Euskara, administrazio mailan baita herritarren artean ere euskara sustatu eta erabili.
- Soraluze bakearen alde. Errespetuan eta elkarrekin konpontzean oinarrituriko bizikidetzan egin nahi dugu aurrera, indarriaren kultura gaindituz.
- Soraluze erabakitze eskubidearen alde. Udaletik erabakitze eskubidearen alde lan egingo dugu.

Euskarari ze ekarpen egingo diozue

Bi plan garatuko ditugu:

Euskara biziberritzeko plana eta euskararen erabilera administrazio mailan normalizatzeko plana.

Zergatik bozkatu beharko genuke PNV/EAJ?

Nire kasuan, zortzi urtetako esperientzia daukat udal kudeaketan. Zuzenbidean lizentziatua naiz eta ingurugiro zuzenbidean Masterra daukat. Udal kudeaketa ongi ezagutzen dut. Umiltasunez, ideiak garbi edukita herri honen alde lan egiteko prest nago.

Zeintzuk izango dira lau urte hauetarako zuen taldearen proposamen eta asmo nagusiak

Gure taldeak 10 proposamen aurkezten ditu:

- Egoera ekonomikoari buelta ematea. Gure udaleko egoera ekonomikoa oso kezagarria da, beraz egoera honi buelta eman behar zaio ondoren zehaztuko ditudan proiektuak gauzatu ahal izateko.
- Zirkulazio aldaketari dagokionean baita herri erdia peatonalizatzearen inguruan harturiko erabakiak birplanteatuko genituzke.
- Hezkuntza alorrean haurtzaindegia, jantokia eta ludoteka gaur egungo eskarira egokitu beharko lirake.
- Aparkaleku kopurua handitu udalerrian.
- Kiroldegi gaina amaitu eta kultur eragileentzat lokalak eta aisialdirako gune bezala egokitu.
- Ongizatea eta berdintasunaren alorrean, udal baliabideak gaur egungo egoera sozialera egokitu genituzke, berdintasun plana garatuz.
- Landa gunea eta Ingurugiroari dagokionean, bertako bideen konponketa eta mantenimendu

Zerrenda

1. Iker Aldazabal Basauri
2. Nagore Zabala Arrieta
3. Ramon Gallastegui Aldazabal
4. Jose Rafael Varela Iriondo
5. Maria Carmen Ecenarro Tototicaguena
6. Jose Javier Garmendia Ondarra
7. Xabier Alberdi Aguirrezabal
8. Amaya Bedayo Aizpiri
9. Abel Olaizola Alberdi
10. Veronica Galarraga Izaguirre
11. Pedro Manuel Etxabe Zubizarreta
12. Maria Teresa Oregui Artolazabl
13. Jose Angel Basauri Lete
14. Jose Ramon Zabala Zozaya



Soledad del Bosque PSE-EEko alkategaia

Soledad del Bosque (1950) Alderdi sozialistako bozeramailea izan da azken hiru legealdietan. Hirigintza, Ogasuna, Politika soziala, Nekazaritza, Lan batzordeetan sozialisten ahotsa izan da. Batzar Orokorretan eta Gipuzkoako Legebiltzarrean ere bozeramaile ibilitakoa da.

Ze balorazio egiten duzu joandako legealdiaz?

Gure taldeak legealdiaren gainean egiten duen balorazioa ezin da positiboa izan. Aurretik esan izan dugun moduan, lau urteotan erabakiak inposizioz hartu direla uste dugulako. Ekimenetan gure babesa bermatua zegoenean bakarrik hartu gaituzte kontuan.

Zeintzuk dira zure taldearen asmo eta proiektu nagusiak:

Gaurko egunez, proposamen asko ditugu guztiok Soraluzerako, baina guk argi dugu ezingo diogula herriari iruzur egin bete ezingo ditugun promesekin. Baina izatekotan, autoen aparkalekuen arazoari irtenbidea topatzen saiatuko gara. Eguneko Zentru baten proiektua benetakoa bihur dadin egin beharreko pausuak emango ditugu bestelako erakundeekin. Eta oso garrantzitsua dena, herritik gertu egongo gara gure laguntza

“Ezkerreko alderdia gara, herritar guztietaz arduratzen dena”

behar duten bizilagunekin beraien NANA edo ideia politikoak eskatu gabe.

Ze ekarpen egingo dio zure alderdiak euskarari?

Egia esateko, uste dugu gure alderdiak ez duela inorean euskararen gainean ezer aldarrikatu beharrik. Esan nahi dugu, errazegi ahazten baita, Alderdi Sozialista izan zela Eusko Jaurlaritzatik Eskola Publikoa sortu eta bultzatu zuena. Zenbait sektorek hau horrela izan zela ahaztu nahi dute. Gaurko egunez ziurta dezakegu, batzuen nahigabera-ko, sozialistak gobernuan daudenetik euskarak ez duela sufritu. Baina pentsatzen dugu, hizkuntza bat bultzatu edo sustatzeagatik ezin dela beste bat baztertu eta ignoratu. Guk, gu egongo garen instituzioetatik Euskadi, bi hizkuntza ofizialdun komunitate elebiduna dela defendatuko dugu. Dena dela, badugu proposamen bat. Agintera helduko bagina, langabezia eta herrian erroldatuta dagoenak eta euskarako klaseak jaso nahi dituenak, laguntza bat jasoko luke hilerio 2011-2012 ikasturtean izena emateagatik. Eta zergatik ez? Arrakastatsua balitz, legealdi osoan mantenduko genuke.

Zerrenda

1. Soledad del Bosque Zarobe
2. Patricia Borinaga Albeniz
3. Zohartze Zarraga Iriarte
4. Xabier Iñurrieta Labayen
5. Teogenes Ruiz Gutierrez
6. Rosa del Bosque Zarobe
7. Jose Luis Perez Perez
8. Daniel Ruiz Gutierrez
9. M^a Concepcion Albeniz Alberdi
10. Gonzalo Solana Lancho
11. Jose Ignacio Borinaga Lopez

Zergatik bozkatu PSE-EE?

Ezkerreko alderdia garelako, herritar guztietaz arduratzen dena, lehen aipatu moduan bere nazionalitatea eta darabilen hizkuntza kontuan hartu gabe. Denok ditugu eskubide berberak eta uste dugu politika egiteko eta bizilagunen arazoak konpontzeko moduak daudela, inposizioetan eta lagunkoikerietan jausi gabe, ezberdin pentsatzen duenaren gainetik pasa gabe.



Julia Tercero Isasi

PPko alkategai



Julia Tercero (1952) erizaina da ogibidez. Zumarragako udalean hasi zen politika munduan lehenengoz, eta Alderdi Popularreko ordezkaria izan zen 2002an udala zuzentzeko sortutako Gestoran. Hurrengo legealdian Azpeitiako udalean eta joandako lau urteetan Lizartzan jardun du.

Ze balorazio egiten duzu joandako legealdiaz?

Jaso dudan informazioaren arabera, legealdi zaila eta konplikatua izan da, ANV gobernu taldearen jarrera eta guzti. Hala eta guztiz ere, Alderdi Popularrak ahalegina egin du udal akordioak lortu baititugu eta oposizioko beste alderdi batzuekin gestioak egin.

Zeintzuk dira zure taldearen asmo eta proiektu nagusiak:

Datozen lau urteerako gure proposamenen zati haundi bat arlo ekonomikoari zuzendu diogu, krisitik errekuperatu eta herrian lana sustatzeko.

Austeritatea exigituko dugu kontu publikoetan, eraginkortasuna ditugun errekurtsioak eta aurrekontuek bere fruituak eman ditzaten. Ordenantza fiskalak eta tasak jaisteko eskatuko dugu eroste ahalmena hobetzeko. Halaber, udaleko tramiteak sinpletzeko eskatuko dugu iniziatibadun ekintzai-

leek erraztasun haundiagoa izan dezaten euren ideia eta proiektuak martxan ipintzeko.

Bestetik, Irisgarritasun Plana berriztea proposatuko dugu, puntu beltzen mapa osatu eta bakoitzean behar diren ekintzak bultzatuz. Ezin dugu aparkalekuen arazoa ahaztu, zeinak ikerketa sakona behar duen soluzio onak aurkitzeko.

“Enplegurako egoera ekonomikoa hobetzea dugu helburu”

Ze ekarpen egingo dio zure alderdiak euskarari?

Arlo linguistikoari dagokionez, gure jarrera funtsezko bi printzipiotan oinarritzen da. Batetik pertsona bakoitzak nahi duen hizkuntzan jardun dezakeela defenditzen dugu eta horregatik ez dadila kaltetua izan edota ez dezala inongo traba edo zailtasunik aurkitu. Modu berean, euskara denon ondarea dela uste dugu eta ez duela alderdien arteko liskar izan behar. Gure hizkuntzarentzako onena politikagintzatik eta alderdien arteko liskar eta ezberdintasunetatik kanpora geratzea da.

Zergatik bozkatu PP?

Alderdi Popularra fidatu daitekeen alderdia da. Lana sortu dadin egoera ekonomikoa hobetzea izango da gure helburua lehen unetik eta bizilagunen ongizatea hobetzea helburu. Horrez gain, beti egongo naizelako prest soraluzetarren arazoak, beharrak eta ideiak entzuteko eta euren eskariei irtenbidea aurkitu eta proiektuak bideratzeko

Zerrenda

1. Julia Tercero Isasi
2. Alejandro Lombardo Sanz
3. Maria Tavira Montes Jovellar
4. Jose Antonio Frutos Roldan
5. Silvia Garcia Bravo
6. Maria Gema Suarez Fernandez
7. Fernando Tormo Gomez Teran
8. Piedad Sardina Valle
9. Monica Uceda Alonso
10. Gustavo Adolfo Garcia Delgado
11. Carla Viti Muñoz



Vicente Martínez Sousa

EB-BERDEAKeko alkategaia

Vicente Martínez Sousa (1968), trenbideetako langilea da. Ezker Batua-Berdeak taldean dagoenetik ingurugiro arloa landu izan du.

Ze balorazio egiten duzu joandako legealdiaz?

Egia da aurrerapenak izan direla, peatonalizazioa, igogailuak, arlo sozialen hornikuntzan hobekuntzak. Baina gehiago sakondu behar da herritarren parte-hartzean eta pertsonentzako, etxebizitza edo enplegu publikoen arloetako zerbitzu sozialetan.

Zeintzuk dira zure taldearen asmo eta proiektu nagusiak:

Enplegu publikoari, etxebizitza sozialei, zerbitzu sozialei eta herritarren parte-hartzea areagotzea dira lehentasunak, PC-ko (Partido Comunista) araudia lau arlo hauetan onartuz:

Hirigintza jasangarri bat eta aurrekontu parte-hartzaile doitua nahi ditugu: Industrialdea lehenera ekarri, zabaldu eta ekintza ekonomiko berriak erakarriko ditugu. Zerbitzu enpresak, I+G+B eta babes ofizialeko etxeak kañoi fabrika dagoen lekuan egingo ditugu. Etxebizitza hutsen alokairuaren alde egingo dugu. Trafikoaren berrordenazio bat behar dugu, ordutegi malguagoekin.

**“Soraluzeko
aldaketa sozia-
laren aldeko
bozka gara”**

Irisgarritasunari dagokionez, eskilara mekaniakoak ipiniko ditugu Elizburutik Estaziño kalera eta igogailua Oleako Zubitik bidegorrira. Ingurugiro arloan eguzki energiaren funtzionatzen duten farolak ipintzeko proposatu nahi dugu, baita uraren kalitatearen eta Deba ibaiko espezieen kontrola ere.

Zerbitzu sozialei dagokionez, anbulategia 24 ordu zabalik egoteko lan egingo dugu, eta etxez-etxe asistentzia zerbitzua osatu. Erresidentzia haunditu eta soraluzetar guztiei plaza bermatu nahi diegu.

Kirola eta kulturaren banakatzea nahi dugu: kultur etxe berria Batzokiko eraikina dagoen lekuan nahi dugu. Horrez gain, gaztetxea eta gaztelekua biak Parrokiako etxea elkarbanatzea ideia ona iruditzen zaigu.

Funeral zibilak egoteko ere lan egingo dugu.

Ze ekarpen egingo dio zure alderdiak euskarari?

Euskara gure aberastasun kulturalaren zati da. Ezker Batua-Berdeak alderdian soraluzetar guztiek bi hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabili ahal izatea dugu helburu. Horretarako euskalduntzeko zerbitzu publiko bat litzatekeen Euskaltegi baten alde egingo dugu, euskalkia sustatzen saiatuko gara.

Zergatik bozkatu EB-BERDEAK?

Gaur plaentxiarrek krisitik irtetzeko nahia dute eta EB-B euskal ezker federalista bakarra da, pertsona guztien eskubideen alde lan egiten duena eta enplegu publiko eta kalitatezko baten alde. Zure abstentzioaz edo PSE-PP bozkaz PNV-H1 alderdien politika antisozialak bultzatzen dituzulako eta Aralar-Bilduk independentzia sozialismoari aurrezarriko dielako. Soraluzeko aldaketa sozialaren alde boztua gara.

Zerrenda

1. Vicente Martínez Sousa
2. Carmen Bercedo Calderón
3. Iñaki Azurza Aramburu
4. Inmaculada Calvo Pérez
5. Miren Contreras Galán
6. Alberto Lozano Reinoso
7. Tamara González Calvo
8. Antonio Montoya Zamora
9. Ikerne Cousillas Saranova
10. Pablo Pérez San José

Bertso bazkaria Gaztetxean

Bihar, zapatua, bertsoek jantziko dute Gaztetxea errepresoaren kontra egiteko antolatutako bertso bazkarian. Gai hitzak ipiniz hiru bertsolari ari-tuko dira: Eneritz Artetxe, Ministro eta Eneko Beretxinaga. Bazkaria 14:30ean hasiko da eta tiketak 8 euro-tan daude salgai, Arrano eta Gazte-lupe tabernetan.

Agin Rezolak eta Beñat Lizasok jaso zituzten puntu gehien

12 bertsolari lehiatu ziren Gipuzkoako Bertsolari txapelketako Soraluze-ko saioan. 70 bat lagun hurreratu zen goizeko saioa ikustera, 100 arratsal-dekora. Itziar Etxezarreta ibili zen gai jartzaile lanetan eta epaimahaia Zigor Leunda, Iñigo Legorburu, Egoitz Unamuno eta Iban Sukiak osatu zuten. Goizeko saioan Agin Rezolak jaso zituen puntu gehien, 367 guztira eta bere freskotasuna eta erregularitasuna azpimarratu zuten epaileek. Arratsaldean berriz Beñat Lizasok jaso zituen puntu gehien, 289 danera.

**Maiatzeko Kultur agenda****GAUR maiatzak 20**

ANTZERKIA gaztelera.
Urrup antzerki taldeak aurkeztuta:
"El cianuro, solo o con leche"
22:15ean, Zinean. Sarrerak 3 euro.
Ant: Soraluzeke Udala

MAIATZAK 26, eguna

"ZU ERE BERTSOLARI"
PHIko ikasleen bertsolaritza saioa.
Arratsaldeko 17:00etan, Zinean.
Ant: Plaentxi Herri Ikastetxea

MAIATZAK 30, domeka

XVIII. KALEKO MARGO LEHIAKETA
Goizeko 9etatik aurrera.
Oinarriak Udaleko kultura zerbitzuan. Informazioa: 943753043.
Ant: Soraluzeke Udala

200 ume jarriko ditu dantzan aurtengo Euskal Jaiak

Gertu du Soraluzeke Euskal Jai Batzordeak aurtengo edizio-ko egitaraua. Ekainaren 5ean Oñati, Aretxabaleta eta Arrasateko dantzariekin batera, 200 ume inguruk dantzan jardungo dute goiz eta arratsalde herriko kaleetan zehar. Goizeko 11:30ean talde denek kalejira egingo dute, ondoren Plaza Zaharrean dantza erakusketa egiteko. Ohikoa den moduan, arratsaldeko saioari hasiera eman aurretik, dantzari gazteek herriko etxeetan bazkalduko dute. 17:00etan kolorez eta musikaz jantziko da berriz ere Plaza Zaharra, arratsaldeko dantza saioarekin. Bu-

ruhandiekin kalejira egingo dute gero, festari bukaera emateko.

V. Erromerixa Eguna ekainaren 11n

Herriko dantzarien trebeziek hartuko dute Ezoziko plaza ekainaren 11n, V. Erromerixa Egunean. Batzordeko kideek jakinarazi dute, betiko moduan, bazkaria norberak eraman beharko duela eta aulkiak eta mahaia Ezozin bertan izango direla nahi duenarentzat erabilgarri. Horretarako Iratxo Goxodendan izena ematea besterik ez da egin behar. Izena ematen dutenek, hortaz, lehenasuna izango dute.

ERROMERIXA EGUNeko EGITARAUA

11:00etan salda eta txorizoa banatuko da Plaza Barrixan.

12:00ak aldera Ezoziraino kalejira egingo da, herriko trikitilariak girotuta.

13:00etan txistulari, soinu-jole, panderojole eta dultzaineroen erritmora dantza saioari hasiera emango zaio.

Ondoren arratsaldeko erromerietan indar berriturik dantzatzeko, ermita azpian bazkaltzeko tartea izango dute bertaritzen direnek.

18:00etan Aiko taldeak girotuko du Ezoz.

Jarraian Larrain Dantza egingo da.

19:30ean MPS erromeri taldeak itxiko du egitaraua.

**Oskorrik publikoa kantuan jarri zuen**

Oskorri eta Pub Ibiltariak Zinean jo zuen aurreko barixakuan.

Adin guztietako jendeak osatu zuen entzulegoa, kantuan batzuk dantzan ere bai zenbaitek egin zuen. Natxo de Felipe zuzendari lanetan ibili zen, txandaka orain neskak eta orain mutilak kanta zezaten aginduz.



Zapatuan irabaziz gero, mailaz igoko dira Erregionalak

Martuteneri 0-7 irabazi osotean, indarrez bete dira Sorako "A" Erregionalak. Partidu bakarra geratzen zaie igoera lortzeko eta zapatu honetan izango da arratsaldeko 18.00etan, Ezoziko zelaian, Bergara "B"ren aurka. Etxean galduko balute, hau da, Bergarak irabaziz gero eta

Usurbilek ere garaipena lortuko balu, berdinduta geratuko lirarteke sailkapenean. Hala ere, gol "average" edo batzbestekoari begiratu, aurretik geratuko litzateke Sora. Beraz, irabaztea da garrantzitsua, horrekin nahikoa eta soberan izango da Preferrente mailara igotzeko.

Zaleei zapatuan agertzeko eskatu diete Soratik

Jokalariak eta Futbol Taldeko ordezkariek oso animatuta daude asteburuko lehia dela eta. Partidua ikustera joateko deia egin diete zaleei: "Zapatuan, arratsaldeko 18.00etan danok batuko gara Ezozin. Taldia animatu biharra dago azken txanpa honetan igoeria benetan lortu deizen" esan du Alberto Berraondo Sorako ordezkariek.



Iturria: Luki H.



Herriko gimnasten erakustaldia domekan

Maiatzaren 22an herriko 45 gimnastak Eibartik, Marinatik eta Mallabitik datozen beste 110 gimnastarekin batera urtean zehar prestatutako dantzen erakustaldia eskainiko dute goizeko 11:00etatik aurrera

kiroldegiko frontoian. Adinaren araberrako erakustaldiaz gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek, lehen hezkuntzako lehen mailatik hasi eta DBH mailara artekoak.

Kirolari nagusiei agur beroa

25 urteren ostean kiroldegiko entrenamenduak lagako dituzte Karmen Kerejetak eta Martina Zubizarretak, 87 eta 89 urterekin hurrenez hurren. Sasoiak adinik ez duela erakutsi dute gaur arte eta urte guztietako lana omentzeko kideen txalo artean, lore sorta bana eta bonboiak jaso zituzten, emozioz betetako ekitaldian.



EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Merino II 22
Berasaluze VIII – Laskurain 18

Aritz Lasa – Laskurain 22
Saralegi – Begino 13

Berrizen, lau t'erdian

Atxotegi 22
Aranburu 15

Elgetan, lau t'erdian

Atxotegi 17
Mendoza 22

Bergaran Binakakoan

Atxotegi – Perez 15
Azipiri – Lizoain 22

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Anaitasuna F.T. 1-3
Ikasberri K.E. – Sora (Erreg. B) 1-0
Eibartarrak – Sora (Kad.) 2-2
Sora (Jub.) – Arizmendi 0-2
Martutene – Sora (Erreg.) 0-7
Sora (Erreg. B.) – Danena 4-1

Sailkapena:

Jubenilak 5. postuan
Kadeteak 5. postuan

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 21, 18:00etan Ezozin
Sora (Erreg.) – Bergara K.E.

Zapatua 21, 17:30ean Asti-txikin
Zarautz K.E. – Sora (Erreg. B.)

MENDI IRTEERA

Maiatzak 22 domeka,
9:00etan Plaza Barrixan:
Elosu-Soraluze

ZORION AGURRAK



Ioritz Reglero
Maiatzan 17xan 2 urte!
Zorionak eta muxu potolo
haundi asko etxekuen partez!



Garazi Jauntsarats
Maiatzan 8xan 10 urte!
Zorionak printzesa! Muxu
asko etxeko danon partez!



Maria Hernandez
Maiatzan 18xan 4 urte!
Zorionak politta, asko maitte
zaittugu! Jon eta etxekuen
partez!



Lara Ballesteros
Maiatzan 30ian 13 urte!
Zorionak eta muxu haundi
bat etxekuen partez!



Naroa Ros
Maiatzan 18xan 5 urte!
Zorionak kunkunera!
Muxu asko etxekuen partez!



Hiart Prieto
Maiatzan 10ian jaixua!
Ongi etorri politta,
Garazin partez!



Zorionak bikote!
Maiatzan 25ian eta ekainan 2xan,
10 urte betetzen douzelako!
Muxu pila bat, danon partez!



Fernan Rodriguez eta Ainhoa Garcia
Maiatzan 29xan eta 31n! Zorionak!
Primeran pasatu eguna eta laztan haundi
bat haurtzaindegiko lagunon partez!



Irune eta Juanan Varela
Maiatzan 20xan eta 21ian
Zorionak!! Primeran ospatu zuen eguna
eta besarkada haundi bat etxekuen partez!!



Zorionak Begoña eta Nora!
Maiatzan 24an 62
eta urtebete betetzen
douzelako. Besarkada
bat eta mila muxu
etxekuen partez!

jaiotakoak

HIART PRIETO FERNANDEZ
ADAM EL ABDARY
ARATZ AJURIAGERRA RUIZ



hildakoak

CONSTANTINO VAZQUEZ SAN PEDRO
M. ARRATE ZANGITU IGARZA



LEHIAKETA

► Zein ageri
da argazki
honetan?



Saria:
► Txurruka jatetxean
aurrez prestatutako
jakietan 30 euro
gastatzeko.

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:**
Koldo Heriz eta
Mikel Argarate



► **Michaella Weinberg**, herrixan bizi dan alemaniarra da
aurreko aleko argazkixan agertzen zan herritarra.

Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Katariñe Iñurrieta

KORUKO TIPLIAK

1943. urtian herriko korua osatzen zeben abeslari gaztieri etaratako erretratua da hau. Korua Zugasti anaiak, abadiak, zuzentzen zeben eta erretratuan koruko tipliak lagunduta agertzen dira. Kantu saiua egin ostian jasotako argazkixa da eta aurten 68 urte beteko dittu.

Argazkixan:

Goixan: D. Aniceto †, Ramon Mugika, Alberto Txurruka †, D. Juan †.

Erdixan: Jose Olamusu †, Fernando Lara, Alberto Gallastegi, Alberto Lersundi, Xabier Iñurrieta †, Vicente Mari Olaizola, Ramon Bereikua, Javier Elgeta †, D. Luis Eguren †, Anton Oregi †.

Behian: Javier Galarraga, Juan Carlos Arana, Jose Ignacio Galarraga, Gonzalo Gallastegi, Anton Leturiondo †, Juan Mari Altuna, Javier Mougán, Javier Gallastegi eta Juan Carlos Gallastegi.



ARRATE ZANGITU IGARZA

2011EKO MAIATZAREN 6AN.

Bideak hartzeko jaiok dira
pauzoz pauso dastatzeko.
Zure irriari keinu eginaz
jarraituko dugu geurea marrazten.

Maittasunez...



ARRATE ZANGITU IGARZA

2011EKO MAIATZAREN 6AN.

“Eskaintzen dugunaren aldean
asko da amets egin duguna
asko da ia-ia eskuetan izan duguna.

Zu maitatzeko ez dugu
maitasunik eskatuko
zu erraz maitatu izan zaitugu.”

Zure lagunak



DORLETA BEGIL PEREZ

MAIATZAREN 20AN 5. URTEMUGA.

“Denborak azkar batian egin arren, inoiz baino ger-
tuago eta indartsuago sentitzen zaittugu eta horrek,
bizirik mantentzen zaittu, mantentzen gaittu.”

Etxekoak

BOZKATU  **EAJ**
PNV

jakin eta esoin



ONENNA EMIA TEKO GARAI



Soratuze *Soratuze*
Soratuze *Soratuze*



bildusoraluze



Elkarrekin herrigintzan!

